

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



**KUNSTHALLE
BREMEN-en**
bildumako maisulanak

Delacroixetik Beckmannera

2019/10/25 >> 2020/02/16



Poz handiz aurkezten dizuet Guggenheim Bilbao Museoak Kunsthalle Bremen museoko funtsei eskaintzen dien erakusketaren katalogoa. Kunsthalle Bremen Alemaniako museo garrantzitsuenetako bat da, aitzindaria izan baita bildumazaletasun modernoan. 1823an hasi zen bere bilduma liluragarria osatzen; alegia, Bremengo artezaleen elkarte batek Kunstverein izeneko erakundea sortu zuenean.

Erakusketa bikain honetan, Europako arteak XIX. eta XX. mendeetan izan duen bilakaera ikus daiteke, eta, aldi berean, bi sorkuntza-gune garrantzitsuren estetika ezagutu: Alemania —ordezkari gisa hainbat margolari handi hartuta; besteak beste, Caspar David Friedrich, Modersohn-Becker, Dix, Kirchner, Beckmann eta Nolde— eta Frantzia —hainbat artista handirekin; esaterako, Cézanne, Van Gogh, Monet, Delacroix eta Picasso—.

Erakusketarako hautatutako lanek garbi uzten dute asko gustatzen zitzaiela pintura bildumagile alemanei eta trebetasunez aukeratu zituztela denboraren poderioz maisulan bihurtu diren beren garaiko margolanak. Zorionak erakusketaren antolatzaileei, lan bikaina egin baitute proiektu hau errealitate bihurtzeko eta jendeari pinturaren munduaren beste ikuspegi bat emateko.

Pozgarria da Iberdrolarentzat Guggenheim Bilbao Museoaren moduko nazioarteko kultura-erakunde batekin elkarlanean aritzea, zeinarekin hala baitihardugu sortu zenetik; alegia, 20 urte baino gehiago. Izan ere, ziur gaude zeharo garrantzitsua dela artea gure Dibidendu Sozialaren funtsezko zati gisa sustatzea. Horri esker, munduko ondare artistiko eta kulturala babestu nahi dugu, Nazio Batuek ezarritako Garapen Jasangarriaren Helburuetako bat izaki.

Ignacio S. Galán

Iberdrolako Presidentea

***Kunsthalle Bremenen bildumako maisulanak:
Delacroixetik Beckmannera***

- 2019ko urriaren 25etik 2020ko otsailaren 16ra
 - Komisarioak: Christoph Grunenberg, Kunsthalle Bremengo zuzendaria, eta Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna
 - Kunsthalle Bremenek eta Guggenheim Bilbao Museoak antolatutako erakusketa
 - Babeslea: Iberdrola
-
- Erakusketak XIX. mendeko eta XX. mendearen lehen erdialdeko arte alemaniarraren eta arte frantsesaren arteko lotura estua erakusten du, biak ala biak arte modernoa hautemateko modua aldatu zuten korrante artistiko paraleloak izaki.
 - Kunsthalle Bremenen maisulanak eta bertako diskurtso artistikoa agerian geratzen dira ibilbide honetan, zeina, klasizismotik abiatuz, erromantizismoan, inpresionismoan, postinpresionismoan, Worpswedeko artisten kolonian eta Alemaniako espresionismoan murgiltzen baita.
 - Kunsthalle Bremenen lehenengo zuzendari akademikoak, Gustav Paulik, bildumaren profila nabarmendu zuen, arte frantsesaren eta alemaniarraren arteko elkarrizketa dinamikoa oinarritu baitzuen artelanak eskuratzeko politika, eta istorio bat sortu: lider eta jarraitzaileei buruzkoa, lehiari eta elkartasunari buruzkoa, mirespenari eta altxamenduari buruzkoa, eta, azken batean, bere nortasunari buruzkoa.
 - Kunsthalle Bremenek Van Gogh-en *Mitxoleta-soroa* (1889) erosi zuenean, bi taldetan banatu ziren kritikari eta artista alemaniarak. Batzuen ustez, Alemanian abangoardia frantsesa goraiatzea nortasun artistiko nazionalari eraso egitea zen. Besteen iritziz, nazioaren kontua bigarren mailakoa zen, mugak gainditzen zituen artea interesatzen baitzitzaien benetan.

Guggenheim Bilbao Museoak *Kunsthalle Bremenen bildumako maisulanak: Delacroixetik Beckmannera* dakar, Kunsthalle Bremen museoaren funts oparoetako aukeraketa bikaina, zeinak agerian jartzen baitu XIX. eta XX. mendeetako arte alemaniarraren eta arte frantsesaren arteko lotura estua. Iberdrolaren babesari esker aurkeztua, Arte modernoa hautemateko modua aldatu zuten bi korrante artistiko paraleloren arteko elkarrizketa bizia ez ezik, museo horren historia eta eztabaida artistikoa ere islatzen ditu Iberdrolari esker aurkeztutako erakusketa honek, erromantizismotik hasi eta inpresionismoan, postinpresionismoan, Worpswedeko artisten kolonian eta Alemaniako espresionismoan murgilduz.

1849an sortu zen Kunsthalle Bremen, Bremengo Kunstvereinek aurretik egindako lanaren ondotik. Kunstverein artezale eta arte-aditu batzuek sortu zuten 1823an, gizarteak «edertasuna nola ulertzen zuen» hobetzeko asmoz. Hasiera hartan, zenbait herritarrek osatzen zuten. Herritar haiek artearekin konprometituta zeuden eta hura oso gustuko zuten, eta beren grabatu eta marrazkien bildumei buruz hitz

egiteko elkartzen ziren. Baina, elkarteak erakusketa publikoak antolatzen eta bilduma propioa sortzen hasi zuenean, Kunstvereinen kide kopurua berehala handitu zen, eta bere museoa sortu zuen.

50 urte geroago, 1899an, elkarteak bere lehenengo zuzendari zientifikoa aukeratu zuen: Gustav Pauli arte-historialaria. Hasierako bilduma arduradun ez-adituen gidaritzapean kideek elkarteari eginiko dohaintza pribatuei esker osatu zen. Paulik, aditua zen aldetik eta bere jakinduriari esker, bildumaren profila findu eta nabarmendu zuen. . Izan ere, Paulik arte frantsesaren eta alemanaren arteko elkarrizketa dinamikoan oinarritu zuen artelanak eskuratzeko bere politika.

Kunsthalle Bremenen historia, halaber, konexio globalak dituen hiri baten bilakaeraren historia da, zeina mendez mende enpresa- eta merkataritza-jardueraren, ontzigitzaren eta itsas nabigazioaren ondorioz sortu baita, Bilbo bezalaxe.

ERAKUSKETAREN AURKEZPENA

305. aretoa. Klasizismotik erromantizismora

Areto honetan, arte alemaniarrek eta frantsesak neoklasizismo berantiarretik erromantizismora izan duen bilakaera erakusten du, baita artista alemaniarrek eta frantsesek landutako postulatuetan ere: erromantizismo frantsesak gustuko zituen literaturako gaiak eta muturreko aldarteak, eta egile alemaniarrek, berriz, natura behatzen zuten lasaitasunez, hilkortasunari buruz hausnartzen, eta berezko eredu klasiko mediterraneoaren miresten.

Klasizismoa

Erromako hiriak biziki erakarri izan ditu beti artistak eta intelektualak. XVII. mendean geroztik, Erromara joaten ziren pintoreak, eskultoreak eta arkitektoak, Europako iparraldeko herrialde askotatik abiatuta.

1809an, zenbait artista aleman San Lukasen Anaidia (*Lukasbund*) eratzeko elkartu ziren, eta, urtebete geroago, Erromara joan ziren, han elkarrekin bizi eta lanean aritzeko. Ez zioten Erroma klasikoaren ereduari jarraitu nahi, baizik eta Rafaelen estiloko pintura erlijiosoari, Bibliako pasartetan oinarritutakoa. Ideal estilistiko klasizistak berreskuratzea zen haien asmoa, eta beren obrekin masa herrikoietara heltzea. San Isidoro monasterioan jarri ziren bizitzen, arropa zabalak janzten zituzten eta adats luzeak zeramatzaten, Jesus Nazaretekoak bezala; arrazoi harengatik, «nazaretarrak» deitzen zieten.

Emakume italiarren edertasunak liluratu egiten zituen iparraldetik etorritako artistak. Nazaretarrentzat, Rafaelen ideala irudikatzen duten figurak dira eredu nagusia. Theodor Rehbenitzek, egindako *Vittoria Caldoni-ren erretratua* (1821) izan zen adibiderik famatuena.

Bestalde, forma zehatzak, lerro delikatuak eta gainazalen azterketa xehea dira orobat Théodore Chassériauk 1833-35 inguruan klasizismoaren printzipioei jarraikiz margotu zuen koadroaren ezaugarri

nagusiak: *Emakume gaztea (Melankolia)*. Obra honetan ez da irudikatzen pertsona zehatz bat, baizik eta garaiko berezko gai bat adierazten duen pertsona bat: tradizio frantseseko «melankolia gozoa».

Erromantizismoa

1830eko eta 1840ko hamarkadetan, artista frantses askok naturan bilatu zuten inspirazioa, eta, 1820tik aurrera, Barbizongo herrira joaten hasi ziren. Fontainebleauko basotik hurbil zegoen, eta aire zabalean margotzeko mugimenduaren garapenarekin lotzen da; alegia, «Barbizongo eskola» deiturikoarekin. 1860ko hamarkadan, beste pintore-belaunaldi bat iritsi zen herrira; tartean Pierre-Auguste Renoir, Claude Monet eta Camille Pissarro inpresionista gazteak zeuden, eta beren artea sortu zuten argian eta lehenengo belaunaldiaren aire zabaleko pinturan oinarrituta.

Ilustrazioaren arrazionalismoarekiko erreakzio gisa, erromantizismoa Europa osoan barrena zabaldu zen, arimaren aurpegi ilunena ardatz duen mugimendu artistiko gisa. Kolorea modu berritzailean erabiltzen zuenez eta *valeur* (argi-itxala) eta *teinte* (kolorea) bereizten zituen, beste estiloetatik bereizi zen, baina desberdin garatu zen Alemanian eta Frantzian. Eugène Delacroixen lan dezente daude Kunsthalle Bremenen bilduman. Delacroix eskola erromantiko frantsesaren artista nagusietako bat da.

1800 aldera, Alemaniako pintore erromantikoek (besteak beste, Karl Gustav Carus, Johan Christian Clausen Dahl, Caspar David Friedrich eta Friedrich Nerly) modu liluragarrian lotu zituzten paisaia-pintura eta zientzia. Zientzia, artea eta estetika oso lotuta zeuden haientzat, Johann Wolfgang von Goethek geologiari buruz idatzitako testuek eta Dresdeneko jakintsu batek, Carusek, *Paisaia-pinturari buruzko gutunak eta oharra* lanak erakusten duten bezala.

Friedrichen ez bezala, hura ez baitzen inoiz Italian izan, Carusek guztira hiru bidaia egin zituen herrialde hartara. Baliteke haren *Ilunabarra itsasertzean* (ca. 1820–25) obra adierazkorra Napoliko golkoko kosta malkartsuetan edo Capriko uhartean inspiratuta egotea. Interes berezia zuenez geologian, artista guztiz liluratuta geratu zen arroka-formazio haiek ikustean, harentzat aztergaia baitziren, eta planetaren historiaurrearen ispilua. Kode sinboliko erromantikoari jarraikiz, *Ilunabarra itsasertzean* obrak agerian uzten du Carusek gustuko zuela bai lurterra zena bai beste mundukoa irudikatzea, eta pintura artistaren emozioak edo sentimenduak erakusteko modu bat bihurtzen dela, eta ez bakarrik naturaren kopia bat.

Emozio subjektiboa erromantizismo alemaniarren premisa erabakigarri bat da, derrigorrezko baldintza artelan egiaz adierazgarri bat sortzeko. Behatzaileak ere ezingo du obra guztiz ulertu hartan guztiz murgildu eta barru-barruan sentitu arte. Salbuespen gisa, Friedrichen *Hilerriko atea* (ca. 1825–30) ez zen taxutu artistaren estudioan; aitzitik, kanposantuko atearen egiazko egoera islatzen du. Artistak hautaturiko ikuspegiak datza berezitasuna. Elkarri kontrajartzen zaizkion bi eremutan zatitzen du artistak irudia: aurrean, eremu huts iluna atetzarraren aurrean; atzean, hilobien esparru eguzkitsua. Hau da, bizimodu lurtar ilunaren erreferentzia, beste munduaren agindu tentagarriari kontrajarria.

306. aretoa. Inpresionismoa, eta artista-koloniak eta -taldeak: Pont-Aveneko eskola

Inpresionismoa

Arte modernoaren historia inpresionismoaren eta haren jarraitzaileen ikuspegi erradikal batekin lotuta dago. Jarraitzaile haiek kolore hutsak eta formaren disoluzioa erabiliz irudikatu zituzten hiri modernoaren esperientzia bizia eta landa-paisaia idilikoa aisiaz goatzeko leku gisa ikustearen gogoia.

Erakusketak eskaintzen digun pintura frantsesaren eta alemaniarren arteko elkarriketarekin jarraitzeko, zenbait artista frantses garrantzitsuren lanak (besteak beste, Paul Cézanne, Edgar Degas, Eva Gonzalès, Claude Monet, Pierre-Auguste Renoir eta Auguste Rodin) eta Alemaniako inpresionismoaren ordezkariak (esaterako, Lovis Corinth, Max Liebermann eta Max Slevogt) jartzen dira aurrez aurre. Atal honek agerian uzten du XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran gero eta truke handiagoa zegoela egile alemaniarren eta frantsesen artean.

Erakusketaren pieza garrantzitsuenetako bat Vincent van Gogh 1889ko *Mitxoleta-soroa* obra da, zeina Paulik obrak erosteko aplikatutako politikaren eta arte modernoaren defendatzeko zuen modu aitzindariaren lekuko baita. Bere garaian, Van Gogh obra hori erosi zenean, bi taldetan banatu ziren kritikari eta artista alemaniarak. Batzuen ustez, Alemanian abangoardia frantsesa goraiatzea nortasun artistiko nazionalari eraso egitea zen. Besteen iritziz, nazioaren kontua bigarren mailakoa zen, mugak gainditzen zituen artea interesatzen baitzitzairen benetan. Horren harira, 1918an, aurreko polemika gorabehera, Pauliren ondorengoak, Emil Waldmannek, Paul Cézanne margolari frantsesaren 1898ko *Herria zuhaitzen artean* (*Marines*) koadroa erosi zuen.

Alemaniako inpresionismoari dagokionez, nahiz eta hemen ere oso garrantzitsuak izan aire zabaleko pintura eta naturako argiaren eta kolorearen efektuekiko interesa, zenbait desberdintasun ditu artista frantsesekiko: obretan kolore argiak eta ahulak erabiltzen dira nagusiki, tonu gris eta marroiekin nahasita, eta marrazkia oso zehatza da. «Inpresionismo alemaniarren triunbiratua» esapiderekin definitu zituen Paul Cassirer galerista berlingarrak Max Liebermann, Max Slevogt eta Lovis Corinth. Izendapen horrekin deskribatu zuen Alemaniako pinturan 1890eko hamarkadaz geroztik existitzen zen joera bat, zeina Lehen Mundu Gerra hasi zen arte iraun baitzuen.

Areto honetan, nabarmentzekoa da, halaber, Lovis Corinthen 1899ko *Biluzi etzana*, zeinak Francisco de Goyaren *La maja desnuda* hartzen baitu modelo gisa eta Alemaniako inpresionismoaren ezaugarri berezienak islatzen baititu.

Pont-Aveneko eskola

1886an, Paul Gauguinek eta Émile Bernardek elkar ezagutu zuten Pont-Aveneko herri txikian, Britainiako kostaldean, eta, harreman hartatik, Pont-Aveneko eskola sortu zen. 1890ean, hau adierazi zuen Maurice Denisek: «Komeni da gogoratzea ezen pintura bat, gudako zaldi bat izan aurretik, edota emakume biluzi bat edo pasadizozko gertaera bat izan aurretik, ordena jakin batean konbinatutako kolorez estalitako gainazal lau bat dela»; hala, XX. mendeko arte abstraktuaren oinarriak iragarri zituen.

307. aretoa. Artista-koloniak eta -taldeak. Worpswede eta Die Brücke, espresionismoa eta surrealismoa

Areto honetan, Paula Modersohn-Beckerren estilo berezia ikus daiteke, espresionismoaren agerpen goiztiar gisa. Estilo horrek eragina izan zuen XX. mendearen lehenengo erdialdeko arte frantsesak eta alemaniarrek geroago izan zuten bilakaeran. Hemen ikusgai dauden obrek espresionismoaren aurrerapena erakusten dute (bereziki, Die Brücke artista-taldearen lanetatik hasi eta Max Beckmannen lanetara), baita surrealismoaren garapena ere (André Massonen lanetatik Richard Oelzeren lanetara).

Worpswede

Bremendik hurbil, Worpswedeko artista-koloniako pintoreek inguruko eremu zingiratsuetan eta txilardi lehorretan jarri zuten arreta, baita bertako nekazarien lanean ere. 1900. urtean, artista horiek bidaia bat egin zuten Parisko Erakusketa Unibertsala ikustera joateko, eta, han, Camille Coroten, Jean-François Milleten eta Théodore Rousseauen paisajismoa aztertu zuten. Hiru artista horiek Barbizongo artista-koloniako kideak ziren, zeina eredutzat baitzuten.

Areto honetan, Paula Modersohn-Beckerren zenbait obra daude. Artista horrek ibilbide laburra izan zuen, baina 30 autorretratu baino gehiago egin zituen, tartean bere obra garrantzitsuenetako batzuk. Paula Modersohn-Becker Worpswede sortu zutenetako baten bigarren emaztea izan zen; hain zuzen ere, Otto Modersohnena. Paula Bremenen jaio zen, baina askotan joan zen Parisera, eta lotura berezi bat sortu zuen bi hirien artean. Nahiz eta Parisko garai hartako artistek eragin handia izan zuten harengan, Modersohn-Beckerrek leial iraun zien Worpswedeko gaiei: bertako jendea eta paisaiak. Hala ere, Parisen eman zuten denboran bildutako ideiak haren natura hiletan islatuta geratu ziren (ez zen oso ohikoa koloniako pintoreek natura hilak margotzea), baita paisaia zingiratsu abstraktueta ere, zeinak hain abstraktuak ziren, ezen bere kideengandik urrundu baitzuten Modersohn-Becker.

Gustav Pauli Worpswedeko artista-kolonia babestu zuten artista nagusietako bat izan zen, eta, 1908an, Modersohn-Becker hil eta urtebete geroago, haren obrari buruzko lehenengo atzera begirakoa antolatu zuen. 2007an, Paula Modersohn-Beckerren heriotzaren ehungarren urteurrena zela eta, Kunsthalle Bremenek erakusgai jarri zuen, lehen aldiz, 1900eko abangoardia frantsesaren abaroan hazitako artista alemaniar honen obra. *Frankfurter Allgemeine Zeitung* egunkariak berotasun handiz hartu zuen albistea, honako lerroburu hau lekuko: «Picasso alemaniarra emakume bat da». Erakusketaz geroztik, Modersohn-Becker modernotasunaren aitzindari gisa hartu zen nazioartean.

Bestalde, Otto Modersohnen *Udazkena zingiran* (1895) obran herriaren ingurumariak ageri dira irudikatuta, erdi urperatuak, eta urki batzuk eta kanaberazko teilatudun etxalde bat hodeipean, urdin biziko zeru baten aurrean. 1895ean Otto Modersohnnek eta Worpswedeko beste kide batek, Fritz Mackensenek, Municheko Kristalezko Jauregian aurkeztu eta lehen aldiz nazio- zein nazioarte-mailako adituen arreta erakarri zuten lanetako bat izan zen mihise hori.

Die Brücke [Zubia]

1905ean, Karl Schmidt-Rottluffek, Erich Heckelek, Ernst Ludwig Kirchnerrek eta Fritz Bleylek Die Brücke [Zubia] sortu zuten. Artista-talde hark, arte-adierazpen berriak biltzeko bere ahalegin horretan, gogor

astindu zituen konbentzio tradizionalak eta goitik behera irauli zuen arteari buruzko ikuskera Alemanian. Haien kontsigna ideologikoak «gaztetasuna, subjektibotasuna eta askatasuna» ziren, eta trazu kementsuz aplikatzen zituzten beren lanetan, matxinada estetiko batean.

Bat eginda iraun zuten bitartean, Die Brücke taldeko artistek bakanetan lortu zuten beren obra Kunsthalle Bremenen erakusgai jarrita ikustea. Gainera, aldi bakan horietan ere, publikoak eszeptizismoz hartu zituen haien lanak. Behin Lehen Mundu Gerra bukatuta, Emil Waldmannek, Pauliren ondoren museoko zuzendari izan zenak, Die Brücke taldeko margolarien alde jardun zuen, haiek Bremengo publikora hurbiltzen saiatuz.

Espresionismoa

Kunsthalle Bremenen bildumako elementu garrantzitsuenetako bat Max Beckmannen —indibidualista bat arte modernoaren historiaren barruan— obra-multzoa da. 1906an, Die Brücke taldeko espresionistek «ezarritako korrante konbentzionalen» aurka erreakzionatu zutelarik, Beckmann berariaz ahalegindu zen artearen historiako tradizioarekin konektatzen.

Autorretratu saxofoiarekin (1930) izenekoan, bere ibilbide osoan Beckmannek bere nia aztertzeke egin zituen berrogeitik gorako autorretratu bat, antzezle gisa aurkezten digu bere burua margolariak. Hogeita hamarrek hamarkadan, modan egon ziren kabareta, vaudevillea eta zirkua, eta artista askoren arreta erakarri zuten; besteak beste, Beckmannena, zeinak askotan irudikatu baitzituen giro hori. Mihise honetan, modu anbiguoan erretratatu du bere burua: akrobatena bezalako elastiko arrosa bat eta txabusina daramatza, eta, esku artean, saxofoi bati eusten dio, garaikidetasuna eta arte independentea sinbolizatzen dituen jazz-instrumentuari. Instrumentutik hurbil, gramofono baten bozina antzematen da. Hala, itxuraz, Beckmannek entzule gisa irudikatzen du bere burua, baina baita musikari pasibo gisa ere. Inor ez da ari instrumentua jotzen, eta hark eta ilea moztuta ageri den buruak Alemaniako egoera politikoaz zuen bihozkada iradokitzen dute. Gainera, sinbolismo horri kolore disonanteak eta agertokiko eremu ez-definitua elkartzen zaizkio, eta gogo-aldarte nagusia indartzen dute. Nazismoa Alemaniara iritsi zenean, margolariaren ibilbidea hankaz gora jarri zen, eta, 1937an, arte degeneratuaren erakusketa inauguratu ostean, Beckmann herrialdetik joan zen.

Bestalde, Otto Dixen margolanetan askotariko estiloak daude, nahiz eta gerrari buruzko pinturak diren ezagunenak. Eragin handia izan zuten artistarengan Lehen eta Bigarren Mundu Gerrek, eta bere arteak gatazkaren izugarrikeria erakusten ditu, bere garaia gogor kritikatzear gain. Nolabait, esan genezake gauza itsusien margolaria dela; ez zuen zalantza egiten bere erretratuetan alderdi hori erakustean.

Horren adibide dugu *Franz Schulze margolariaren autorretratu*, 1921ean Dresdenen egina. Hiri hartan, Dixek Dresdener Secession Gruppe 1919 sortu zuen, gizartea kritikatzeko zuten margolari eta idazle espresionista eta dadaisten talde erradikal bat. Gerrari lotutako eszenen atzetik, erretratuak dira Dixek gehien landu zituen gaiak. Erretratuetan, errealtatea itxuraldatzen zuen, antiestetikoa den hura nabarmentzeko; haren arte gordin eta probokatzailerik kutsu satirikoa du.

Surrealismoa

Alemaniko surrealismoaren barruan, Richard Oelzeren obra nabarmentzen da. Oelze Paul Kleeren ikaslea izan zen Bauhaus-ean, eta Otto Dixena Dresdeneko Arte Ederren Akademian. Gero, 1930eko hamarkadaren erdialdera, Parisko surrealismoa ezagutu zuen, eta bere obra surrealista sortzen hasi zen; oso obra pertsonala, inondik ere, introspektio psikologiko sakonekoa.

Oelzeri harreman existentzialak irudikatzea interesatzen zitzaion, eta haiek pintura bihurtzea. Haren koadroetan (zehaztasun handiz egindako lanak, normalean), nahasian agertzen dira animalien eta gizakiaren arteko hibridoak diruditen izaki bizidunak, batetik, eta objektuak eta espazioak, bestetik; haren ikuspegi onirikoek beti aurkitzen dituzte figurazio berriak gizakiaren beldur eta nahientzat. Haren *Kanpoan* (1965) eta *Barruan* (1955/56) obrak *Barne paisaiak* saileko lan garrantzitsuenen artean daude.

Obra horiek *Exekuzioa eta gero* (ca. 1937) obrari kontrajartzen zaizkio. Massonen bigarren garai surrealista hasi zen orduan, eta figura itsusiak irudikatu zituen, Picassoren eta Dalíren eraginpean.

Pablo Picasso

Lotura estua dago Bremenen, Kunsthalleren eta arte moderno frantsesaren artean. Haren hari nagusia Michael Hertz (1912–1988) arte-merkatari bremendarra da. Daniel-Henry Kahnweiler arte-merkatariaren lagun handia eta kide ideologikoa izan zen Hertz, eta Pablo Picassoren obra grafikoak Alemanian izan zuen ordezkari bakarra. Alemaniako museo eta bildumazale gehienek Hertzi erosi zizkioten Picassoren obra grafikoak. Horri esker da hain zabala Kunsthalleren bilduma, zeinak Picassoren ehunka pieza baititu. Hala ere, 1955ean erosi zuten obrarik garrantzitsuena, hura margotu eta urtebetera. Margolan hori Sylvetteren erretratua da, artistaren estilo berantiar bertutetsuaren adibide bikaina.

1954an, Vallaurisen, artista espainolak Sylvette David ezagutu zuen, Parisko galerista ospetsu baten 19 urteko alaba. Picasso haren edertasunaz liluratuta geratu zen, eta gazte haren berrogei marrazki eta pintura sortu zituen bi hilabeteko epe laburrean. Margolanean, Sylvettek modako jantziak daramatza, eta ile hori luzea motots batean du bilduta, garaiko aldizkarietan agertzen diren gazteen antzera.

Kunsthalle Bremenek balentria gisa ospatu zuen koadro hura erosi izana. Bremengo *Weser-Kurier* egunkariak «griseko sinfonia» bat bezala deskribatu zuen obra. 1956ko maiatzean, Kunsthallek obra erosi berria aurkeztu zuen, Picassoren gainerakoekin batera (obra grafikoko 150 irudi baino gehiago), eta «Alemanian, Picassoren grabatu sorta zabalena duen galeria» bihurtu zen hala.

Katalogoa

Erakusketarekin batera, katalogo ilustratu bat argitaratuko da, Kunsthalle Bremenen funts artistikoak nola sortu eta garatu diren ezagutarazteko. Haren zuzendariak, Christoph Grunenberg-ek, sarrera luzea egin dio, eta Dorothee Hansen, Henrike Hans, Anne Buschhoff eta Eva Fischer-Hausdorf espezialistek entseguak idatzi dituzte erakusketaren lau atalei buruz, zeinetan ezin hobeki biltzen baita erakusketaosatzen duten obren aukeraketa bikaina.

DIDAKTIKA

*Kunsthalle Bremen*en bildumako maisulanak: *Delacroixetik Beckmannera* erakusketaren atal didaktikoak
Kunsthalle Bremen izaera berezia aztertzen du. Horretarako, testuinguruan jartzen ditu arte alemaniarra eta frantsesa ardatz dituen arte modernoko bilduma honek 200 urtean zehar izan duen sorrera eta bilakaera prozesuaren unerik garrantzitsuenak. Horrez gain, paisaia alemaniarren izaerari oso lotutako moldean ezagutzea proposatzen du, «naturan barrena paseo» berezi bat eginez, alegia.

Artista askok naturan bilatu zutenez babesa hiriko bizitza itogarritik eta arau akademiko zorrotzetatik ihesi, sortzaile horiek hirietatik urrun sortu zituzten koloniek ere badute beren tokia eremu horretan.

Jarduerak

Hausnarketa partekatua*

Museoko profesionalek egindako bisitaldi eksklusiboak.

- Komisarioaren ikuspegia: Petra Joos, Museoko arte-arduraduna (azaroak 13)
- Funtsezko kontzeptuak: Marta Arzak, Guggenheim Bilbao Museoaren Hezkuntza eta Interpretazio arloko Zuzendariordea (azaroak 20)

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Tailerra José Manuel Ballesterrekin – *Kunsthalle Bremeneko maisuekin elkarrizketan* (urtarrilak 22 eta 23)

José Manuel Ballesterrek komunikazio-jolas bat planteatzen digu: *Kunsthalle Bremen*en bildumako maisulanak: *Delacroixetik Beckmannera* erakusketako artista handien zenbait artelan interpretatzea haien protagonista diren pertsonaien eta objektuen arteko balizko elkarrizketen bidez. Etxe gorri bat, haize-bolada bat, esnatu berri den neskata bat edo saxofoi bat... nola interpretatuko zenituzke, edo zer-nolako elkarrizketak iradokitzen dizkizute? Norberaren behaketak eta taldeko komunikazioak bat egingo dute Ballesterrek gidatuko duen bi saiotako tailer honetan. Nazioartean entzute handia duen artista horren obra Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduman dago.

Kunsthalle Bremenek eta Guggenheim Bilbao Museoak antolatutako erakusketa.

**KUNST
HALLE
BREMEN**

Azaleko irudia:

Eva Gonzalès

Neskatxa esnatzean [Erwachendes Mädchen], 1877–78

Olio-pintura mihise gainean

81,1 x 100,1 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

Erosia: 1960

Inv. 827-1960/28

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: www.guggenheim-bilbao.eus
(prentsa-eremua).

Prentsak erabiltzeko irudiak

Kunsthalle Bremen bildumako maisulanak: Delacroixetik Beckmannera

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Dagoeneko erabiltzailea bazara, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta joan zuzenean irudiak deskargatzeko orrira.

Prentsan erabiltzeko deskarga daitezkeen irudiek zehaztapen hauek bete behar dituzte:

- Erakusketarekin zerikusia duten artikuluetan soilik erabili ahal izango dira.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe.
- Ezin dira erabili azaletan, ezta promozioetan ere, irudien legezko eskubideak dituenak baimena eman ezean.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa arloarekin, telefonoz (+34 944 35 90 08) edo posta elektroniko bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

1. saila – Klasizismoa Frantzia/Alemania

Merry-Joseph Blondel

Familia-erretratua [*Familienbildnis*], 1813

Olio-pintura mihise gainean

39 × 60 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

1981ean erosia honakoaren funtsekin: Hansako Bremen Hiri Askea

Inv. 1250-1981/3



Theodor Rehbenitz

Vittoria Caldoni-ren erretratua [*Bildnis der Vittoria Caldoni*], 1821

Olio-pintura mihise gainean

47 × 37,5 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

Legatua: Johann Friedrich Lahmann, 1937

Inv. 456-1937/28



1. saila – Italia, natura-estudioak eta erromantizismoa

Johann Christoph Erhard

Artistak mendian atseden hartzen [*Rastende Künstler im Gebirge*], 1819

Akuarela, tinta beltzeko luma eta arkatza paper gainean

12,7 × 18,3 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

1952an erositako honakoaren funtsekin: Hansako Bremen Hiri Askea

Inv. 1952/226



Caspar David Friedrich

Hileriko atea [*Das Friedhofstor*], ca. 1825–30

Oljo-pintura mihise gainean

31 × 25 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

Dohaintza: Galerieverein, 1933

Inv. 416-1933/10


1. saila – Delacroix eta Andrieu

Eugène Delacroix

Ecce homo, ca. 1850

Oljo-pintura kartoi mehe gainean

32 × 24 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

Dohaintza: Claus H. Wencke, Bremen, 2011

Inv. 1505-2011/49



Eugène Delacroix

Lehoia basurde bati erasutzen [*Löwe, einen Eber anfallend*], 1851

Sangina paper gainean

19,9 × 30,8 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

1974an erositako honakoaren funtsekin: Hansako Bremen Hiri Askea

Inv. 1974/627


1. saila – Barbizon

Camille Corot

Soilunea Fontainebleau-ko basoan harresi txiki batekin [*Lichtung im Wald von Fontainebleau mit einer kleinen Mauer*], ca. 1830–35

Oljo-pintura paper eta mihise gainean

32,3 × 44 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

1977an erositako honakoaren funtsekin: Hansako Bremen Hiri Askea

Inv. 1209-1977/14



2. saila – Inpresionismoa

Pierre Auguste Renoir

Natura hila fruituekin (pikuak eta andere-mahatsak), [Früchtestillleben (Feigen und Johannisbeeren)], 1870–72

Olio-pintura mihise gainean

24,8 × 33 × 2,3 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

Legatua: Alfred Walter Heymel, 1925

Inv. 57-1925/4



Eva Gonzalès

Neskatxa esnatzean [Erwachendes Mädchen], 1877–78

Olio-pintura mihise gainean

81,1 × 100,1 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

Erosia: 1960

Inv. 827-1960/28



Vincent van Gogh

Mitxoleta-sorua [Mohnfeld], 1889

Olio-pintura mihise gainean

72 × 91 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

1911n honen laguntzarekin Erosia: Galerieverein

Inv. 319-1911/1



Paul Cézanne

Herria zuhaitzen artean (Marines) [Dorf hinter Bäumen (Marines)], ca. 1898

Olio-pintura mihise gainean

66 × 82 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

Erosia: 1918

Inv. 373-1918/1



2. saila - Alemaniako inpresionismoa

Lovis Corinth

Biluzi etzana [Liegender weiblicher Akt], 1899

Olio-pintura mihise gainean

75,5 × 120,5 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

1926an honakoaren laguntzarekin Erosia: Hansako Bremen Hiri Askea

Inv. 187-1926/1



3. saila – Nabis

Louis Anquetin

Haize-bolada Senaren gaineko zubi batean [Der Windstoß auf der Seine-Brücke], 1889

Olio-pintura mihise gainean

120 × 127 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

Dohaintza: Walther J. Jacobs, 1969

Inv. 991-1968/3



3. saila – Worpswede

Otto Modersohn

Udazkena zingiran [Herbst im Moor], 1895

Olio-pintura mihise gainean

80 × 150 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

Dohaintza: Artearen Lagunak, 1895

Inv. 182-1895/99



3. saila – Paula Modersohn-Becker

Paula Modersohn-Becker

Iluntzea landaldean, etxea eta urkilarekin [Dämmerungslandschaft mit Haus und Astgabel], ca. 1900

Tenpera kartoi mehe gainean

42,5 × 55,7 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen

Erosia: 1967

Inv. 985-1967/33



Paula Modersohn-Becker

Autorretratu lirio urdindun atzealde berdearen aurrean [Dämmerungslandschaft mit Haus und Astgabel], 1900–07


Olio-pintura mihise gainean

40,7 × 34,5 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

Erosia: 1967

Inv. 972-1967/20



4. saila – Espresionismoa

Karl Schmidt-Rottluff

Etxe gorria [Das rote Haus], 1913

Olio-pintura mihise gainean

75 × 90 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

Legatua: Helene & Arnold Blome, 1947

Inv. 511-1947/19

© Karl Schmidt-Rottluff, VEGAP, Bilbao, 2019



4. saila -Max Beckmann

Max Beckmann

Autorretratu saxofoiarekin [Selbstbildnis mit Saxophon], 1930

Olio-pintura mihise gainean

140 × 69,5 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

1954an erositako hainbat laguntzarekin

Inv. 660-1954/31

© Max Beckmann, VEGAP, Bilbao, 2019


4. saila – Picasso

Pablo Picasso

Sylvette [Sylvette], 1954

Olio-pintura mihise gainean

81 × 65 cm

Kunsthalle Bremen - Der Kunstverein in Bremen.

Erosia: 1955

Inv. 689-1955/9

© Sucesión Pablo Picasso, VEGAP, Madrid, 2019

